



## DIRULAGUNTZA-PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2022

### **TURISMOA, MERKATARITZA ETA KONTSUMOA**

1. 2022ko ostalaritzako eta gaueko aisialdiko establezimenduen titularrei zuzendutako laguntza-programa .....	2
2. Turismoa merkaturatzeko eta sustatzeko laguntza-programa – TMS 2022 .....	4
3. Lurralde-proiektu turistikoetarako laguntzen programa –PTT 2022.....	6
4. Ekintzailetzarako eta turismo-enpresen lehiakortasunaren hobekuntzarako laguntzak - EMET 2022.....	8
5. MEC 2022. Merkataritza-establezimenduak eta merkataritza-jarduerarekin lotutako zenbait zerbitzu modernizatzen laguntzea.....	11
6. Merkataritzako bulego teknikoen funtzionamendurako laguntza-programa (MBT 2022-2023) .....	13
7. Hirigune, hiri merkataritzaren lankidetzeta, dinamizazio eta lehiakortasuneko zonako estrategiak sustatzera bideratutako 2022ko laguntza-programarako arauak ezarri eta deialdia egiteko .....	15
8. Euskal Autonomia Erkidegoko merkataritza-sektoreko establezimenduetan kontsumoa sustatzeko «Euskadi bono-comercio / Euskadi saltoki-bonua» programa.....	17
9. Euskal txikizkako merkataritzaren ekipamendu pertsonalaren eta etxeko ekipamenduaren azpisektoreei mantentzeko laguntzen programa - EPERHOGAR .....	19
10. Euskal Autonomia Erkidegoko merkataritza modernizatzeko programaren laguntzetarako (Funts Teknologikoa).....	20



#### 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**2022ko ostalaritzako eta gaueko aisialdiko establezimenduen titularrei zuzendutako laguntza-programa**

#### 2.- Araua

AGINDUA, 2022ko urtarrilaren 25ekoa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuarena, zeinaren bidez arautzen baita EAEko 2022ko ostalaritzako eta gaueko aisialdiko establezimenduen titularrei zuzendutako laguntza-programa, eta haren deialdia egiten baita.

#### 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/02/2200624e.shtml>

#### 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Laguntzen agindu honen xedea da oinarriak ezartzea EAEko ostalaritzako eta gaueko aisialdiko establezimenduetako jardueraren titular diren norberaren konturako langileak edo langile autonomoak, mikroenpresak eta enpresa txiki eta ertainak babesteko eta horiei zuzenean laguntza ekonomikoa emateko, guztia ere COVID-19aren hedapena geldiaraztera bideratuta hartutako neurrien inpaktua minimizatzeke eta jarduerari ahalik eta lasterren berrekitea ahalbidetzeko. Helburu horrekin bat etorritik, laguntza-lerro hau EAEko ostalaritzako eta gaueko aisialdiko establezimenduetan egiten den jardueraren titular diren norberaren konturako langileak edo langile autonomoak, mikroenpresek eta enpresa txiki eta ertainek izandako zuzeneko galera ekonomikoko egoera arintzeko da; izan ere, horiek guztiek, COVID-19aren pandemiak eragindako egoera zailean, ikusi dute beren jarduerak mugatu egin direla lehendakariaren abenduaren 28ko 51/2021 Dekretua onartu izanaren ondorioz.

Era berean, hiru laguntza-lerro desberdin planteatzen dira, jarduera-taldean eta irekitzeko ordutegiaren arabera:

- II. taldean sailkatutako establezimenduentzat, kontzertu-aretoentzat eta I. eta III. taldeetan sartzen ez diren eta 01:00etan itxi beharreko ostalaritzako establezimenduentzat.
- III. taldeko establezimenduentzat, 02:30ean itxi beharreko pub eta taberna berezientzat.
- IV. taldeko establezimenduentzat, 04:30ean itxi beharreko dantzarako eta dibertsiorako establezimenduentzat.

Lehen deskribatutako irizpideen arabera, laguntzaren hainbat zenbateko ezartzen dira, 2.000€ eta 70.000€ artekoak.



5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

Guztira 7.441 eskaera jaso ziren, eta horietatik 6.608k ( % 88,8), 6.385 erakunderi dagozkienak, aldeko ebazpena jaso zuten. Aldeko eskaeren % 89,28 II. taldeko establezimenduenak izan ziren, % 8,81 III. taldeko establezimenduenak eta % 1,91 IV. taldeko establezimenduenak.

22.266.000 euroko aurrekontutik 20.410.200€ gauzatu ziren guztira, horietatik 2.812.000€ Arabako establezimenduetarako izan ziren, 7.197.700€ Gipuzkoarako eta 10.400.500€ Bizkairako.

Laburpena:

Lurraldea	Aurkeztutako eskaerak	Onartutako eskaerak	Aurkeztutako aurrekontua	Dirulaguntza
Araba	1.044	929	3.110.800,00 €	2.812.000€
Gipuzkoa	2.362	2.092	8.161.500,00 €	7.197.700 €
Bizkaia	4.035	3.587	11.711.200,00 €	10.400.500 €
GUZTIRA	7.441	6.608	22.983.500 €	20.410.200€

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Lagundutako entitateak	7.000	6.385



## 1.- Dirulaguntza Programaren izenburua

**Turismoa merkaturatzeko eta sustatzeko laguntza-programa – TMS 2022**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2022ko martxoaren 23koa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuarena, zeinaren bidez arautzen baitira Turismoa Merkaturatzeko eta Sustatzeko 2022. urteko laguntzak (TMS programa), eta horien deialdia iragartzen baita (2022ko apirilaren 4ko EHAA, 67. zk.).

## 3.- Arauaren argitalpena, deialdia eta emate-erabakia (EHAARI Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/04/2201484e.pdf>

## 4.- Dirulaguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Agindu honen xedea da turismo-jarduera sustatzeko laguntzak arautzea eta haietarako deialdia egitea. Xede hori betetzeko, Euskadiko turismo-produktuak diseinatzeko, martxan jartzeko, sustatzeko eta merkaturatzeko laguntzak emango dira. Agindu honetan, gainera, zenbait ekitaldi bultzatuko dira, hain justu «Euskadi Basque Country» turismo-marka eta Euskadiren turismo-posizionamendua proiektatzen laguntzeko, COVID-19ak sortutako ziurgabetasun- eta aldakortasun-egoeran.

Helburu horrekin bat etorrira, honako xede hauek dituzten jarduketak lagunduko dira diruz:

- A. Euskadin garatutako turismo-produktuak sortzen, martxan jartzen, sustatzen eta merkaturatzen laguntzea.
- B. Euskadin egindako kultura-, gastronomia- eta kirol-ekitaldiei laguntzea, baldin eta Espainian eta nazioartean proiektzioa badute, eta Euskadiren irudia eta turismo-posizionamendua sendotzen laguntzen badute.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu-betearazpena eta gizartean duen eragina eta onura. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

Guztira 117 eskaera egin ziren, eta horietatik 83k ( % 70,94) aldeko ebazpena jaso zuten.

Aldeko eskaeren % 79,52 turismo-produktuak sortzeko, abian jartzeko, sustatzeko eta merkaturatzeko proiektuei zegozkien (66), eta % 20,48 ekitaldiei (17).

Aurreikusitako zuzkidura ekonomikoa (717.000 euro) ez da nahikoa izan zenbatetsitako eskaerei erantzuteko, eta, beraz, Agindu arautzailearen 2. artikuluan xedatutakoa aplikatuz, laguntza horretara bideratutako gehieneko zenbateko osoa erakunde onuradunen artean hainbanatu behar izan da. Hainbanaketa % 76,13koa izan da.



	Aurkeztutako eskaerak	Aldeko eskaerak	%	Aurkeztutako gastua	Onartutako gastua	Ebatzitako dirulaguntza
Araba	18	16	88,9	456.184,47	415.507,50	143.685,44
Gipuzkoa	61	45	73,8	991.693,70	919.552,77	345.738,66
Bizkaia	38	22	57,9	700.663,56	610.059,00	227.575,42
Guztira	117	83	70,9	2.148.541,73	1.945.119,27	716.999,52

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazleen emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Turismo-sektoreko enpresei turismo-produktu berriak garatzen eta merkaturatzen laguntzea, eta, gainera, espiritu ekintzailea eta berrikuntzaren kultura sustatzea, turismoa merkaturatzeko eta sustatzeko laguntza-programaren bidez.		
Onartutako proiektuen kopurua:	50	66
Eragindako inbertsioa	2.275.000	1.351.251,13
Turismo-eskaintzaren bikaintasuna sustatzea, helmuguen dibertsifikazioari eta horien berezitasunari lotuta, bai eta Euskadiko turismoaren posizionamendua ere, turismo-proiektzioa duten ekitaldiei lagunduz		
Lagundutako ekitaldien kopurua	15	17
Eragindako inbertsioa	1.000.000	797.290,60



## 1.- Dirulaguntza Programaren izenburua

**Lurralde-proiektu turistikoetarako laguntzen programa –PTT 2022**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2022ko martxoaren 30ekoa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuarena, 2022ko ekitaldirako lurralde-proiektu turistikoetarako laguntzak arautzen eta iragartzen dituena.

## 3.- Arauaren argitalpena, deialdia eta emate-erabakia (EHAari Hiperesteka)

AGINDUA, 2022ko martxoaren 30ekoa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuarena, 2022ko ekitaldirako lurralde-proiektu turistikoetarako laguntzak arautzen eta iragartzen dituena.

EBAZPENA, 2022ko abenduaren 5ekoa, Turismo eta Ostalaritzako zuzendariarena, 2022ko ekitaldian emandako laguntzen zerrenda jakitera ematen duena, 2022ko ekitaldirako lurralde-proiektu turistikoetarako laguntzak arautzen eta iragartzen dituen Aginduak finkatutako esparruan.

## 4.- Dirulaguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Irabazi-asmorik gabeko erakunde publiko eta pribatuentzako programa, erakunde horien helburuen eta/edo ahalmenen artean badago turismo-jarduera garatzea eta sustatzea, EAEren turismo-lehiakortasuna sustatzeko, itzulgarriak ez diren dirulaguntzak baliatuta honako hauen moduko proiektuak egiteko:

- Turismoko lurralde-proiektuak helmugen erakargarritasuna hobetzen dutenak.
- Berrikuntzaren bidez eta turismo jasangarria eta arduratsua garatuz, helmugen kalitatea eta lehiakortasuna hobetuko duten proiektuak

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu-betearazpena eta gizartean duen eragina eta onura. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

Lurralde	Aurkeztuak	Onartuak	Aurkeztutako aurrekontua	Onartutako aurrekontua	Dirulaguntza
Araba	9	7	857.893,30 €	811.916,30 €	361.579,68 €
Gipuzkoa	17	13	1.675.856,86 €	1.466.765,48 €	620.574,49 €
Bizkaia	10	10	1.434.816,78 €	1.397.176,28 €	467.845,71 €
Guztira	36	30	3.968.566,94 €	3.675.858,06 €	1.449.999,88 €

36 erakunde aurkeztu ziren deialdira, eta horietatik 3 ukatu ziren programaren baldintzak ez betetzeagatik, eta beste 3 artxibatu egin ziren. Azkenik, erakunde onuradunak 30 izan ziren. Produktu motaren arabera (gastronomikoa, MICE, natura, kultura eta beste batzuk) onartutako proiektuen kopurua 135 izan da, eta produktu turistikoak (zuzenekoak edo laguntza teknikoak) garatzeko eta kudeatzeko 33 pertsonak (7 gizonak eta 26 emakumeak) sortutako/mantendutako enplegua.



Bestalde, aipatu erakundeetatik 27ri laguntza eman zaio 26 langile kontratatzeko (10 gizonezko eta 16 emakumezko) haien eragin-eremuko enpresetan Euskadiko Turismoaren Kode Etikoa.

Aurrekontu-betearazpena %100koa izan da. Kalkulatutako dirulaguntza teorikoaren gaineko programaren defizita 154.979 eurokoa izan da. Egindako hainbanaketa %90,34koa izan da.

#### 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazleen emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Gure ingurunearen eta Euskadiren ezaugarri bereizgarriak oinarri dituzten turismo-produktuak sortu, garatu, sustatu eta merkaturatzea bultzatzea:		
Onartutako eskabide kopurua	30	30
Onartutako proiektu kopurua, produktu motaren arabera	90	135
Turismo-produktuak garatzeko eta kudeatzeko sortutako/mantendutako enplegua	35	33
Helmugatan kalitatezko programak ezartzen laguntzea: Smart Business, Europako Etiketa Ekologikoa eta abar		
Programak ezartzeko lagundutako destinoen kopurua	23	27
Prestatutako enpresen kopurua	700	543
Sortu/mantendutako enplegua	23	26



#### 1.- Dirulaguntza Programaren izenburua

**Ekintzaitzarako eta turismo-enpresen lehiakortasunaren hobekuntzarako laguntzak - EMET 2022**

#### 2.- Araua

AGINDUA, 2022ko apirilaren 6koa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuarena, turismo-arloko ekintzaitza laguntzeko eta turismo-enpresen lehiakortasuna hobetzeko 2022ko ekitaldirako laguntzak arautu eta horien deialdia egiten duena.

#### 3.- Arauaren argitalpena, deialdia eta emate-erabakia (EHAari Hiperesteka)

AGINDUA, 2022ko apirilaren 6koa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuarena, turismo-arloko ekintzaitza laguntzeko eta turismo-enpresen lehiakortasuna hobetzeko 2022ko ekitaldirako laguntzak arautu eta horien deialdia egiten duena.

EBAZPENA, 2022ko urriaren 18koa, Turismo eta Ostalaritzako zuzendariarena, zeinaren bidez jakinarazten baita 2022ko ekitaldian eman diren laguntzen enpresa onuradunen zerrenda, turismoko enpresen sorkuntzari eta lehiakortasunaren hobekuntzari laguntzeko programa arautzen duen Aginduak finkatutako esparruan.

#### 4.- Dirulaguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Agindu honen helburua toki-garapenari lagunduko dioten turismo-negozioko berriak sortzen laguntzeko oinarriak ezartzea da, baita turismo-enpresen lehiakortasuna hobetzen laguntzera bideratutako jarduketak ere, guztia ere berrikuntza teknologikoaren babesarekin; halaber, haien kalitatea hobetu nahi da eta turismo jasangarriko eta eskuragarriko eredu baterantz bideratu, baldin eta diruz laguntzeko honako ildo hauetan tokirik badute:

- turismo-negozioko eredu berriak sortzea;
- turismo-enpresen lehiakortasuna hobetzea.





5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu-betearazpena eta gizartean duen eragina eta onura. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

ILDOA	Lurralde	Aurkeztutako eskaerak	Artxibatuak	Ukatuak, araudia ez betetzeagatik	Ukatuak, kreditu faltagatik	Onetsiak
Ekintzailletza	Araba	6	1	1	1	3
	Gipuzkoa	19	3	5	6	5
	Bizkaia	27	3	6	13	5
	<b>GUZTIRA</b>	<b>52</b>	<b>7</b>	<b>12</b>	<b>20</b>	<b>13</b>
Enpresen lehiakortasuna hobetzea	Araba	27	0	7	10	10
	Gipuzkoa	77	4	20	18	35
	Bizkaia	73	5	22	20	26
	<b>GUZTIRA</b>	<b>177</b>	<b>9</b>	<b>49</b>	<b>48</b>	<b>71</b>
	<b>GUZTIRA</b>	<b>229</b>	<b>16</b>	<b>61</b>	<b>68</b>	<b>84</b>

ILDOA	Lurralde	Aurkeztutako inbertsioa	Onartutako inbertsioa	Dirulaguntza
Ekintzailletza	Araba	524.004,62	250.440,59	40.338,46
	Bizkaia	5.411.429,44	1.466.708,45	86.502,96
	Gipuzkoa	4.836.416,69	2.074.309,16	73.158,58
	<b>GUZTIRA</b>	<b>10.771.850,75</b>	<b>3.791.458,20</b>	<b>200.000,00</b>
Enpresen lehiakortasuna hobetzea	Araba	1.156.144,76	784.544,32	87.236,07
	Bizkaia	4.029.614,49	1.793.647,09	171.609,92
	Gipuzkoa	3.268.086,09	1.425.173,39	193.154,01
	<b>GUZTIRA</b>	<b>8.453.845,34</b>	<b>4.003.364,80</b>	<b>452.000,00</b>
	<b>GUZTIRA</b>	<b>19.225.696,09</b>	<b>7.794.823,00</b>	<b>652.000,00</b>

ILDOA	Enpresak	Plantillak		
		Gizonak	Emakumeak	GUZTIRA
Ekintzailletza	13	32	35	67
Enpresen lehiakortasuna hobetzea	71	291	296	587
<b>GUZTIRA</b>	<b>84</b>	<b>323</b>	<b>331</b>	<b>654</b>

Diruz lagundutako enpresei dagozkien enplegu-datuak.

Aurreikusitako zuzkidura ez zen nahikoa izan deialdiaren baldintzetara egokitzeagatik ontzat jotako proiektu guztiei erantzuteko. 2022ko deialdian 229 eskaera aurkeztu ziren: 52 ekintzailletza-lerrorako eta 177 enpresen lehiakortasuna hobetzeko. Eskaerak aztertu ondoren, 152 baietsi ziren eta 84 laguntza jaso zuten, hau da, deialdiaren baldintzak betetzen zituzten eskaeren % 45i ukatu egin zitzaizkien laguntza kreditu faltagatik. Programaren defizita 600.613,58 eurokoa izan zen, eta ekintzailletza-lerroko 20 espedienteri (I. eranskina) eta enpresen lehiakortasuna hobetzeko lerroko 48ri (II. eranskina) eragin zien, hau da, guztira 68 eskaerari.



## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazleen emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Ekintzailletza eta ekimen berrien ezarpena bultzatzea		
Diruz lagundutako enpresen kopurua	15	13
Sortu/mantendutako enplegua	24	67
Eragindako inbertsioa (diruz lagundutako proiektuetatik)	1.000.000	2.021.731
Egungo turismo-enpresak eskarien baldintza berrietara egokitzen eta moldatzen laguntzea		
Diruz lagundutako enpresen kopurua	86	71
Sortu/mantendutako enplegua	1.200	587
Eragindako inbertsioa (diruz lagundutako proiektuetatik)	2.500.000	1.770.027

Langileei eta eragindako inbertsioari buruzko datuak diruz lagundutako 84 enpresei dagozkie.



## 1.- Dirulaguntza Programaren izenburua

**MEC 2022. Merkataritza-establezimenduak eta merkataritza-jarduerarekin lotutako zenbait zerbitzu modernizatzen laguntzea**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2022ko maiatzaren 10ekoa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuarena, 2022ko ekitaldirako merkataritza-ekarpenak eta merkataritza-jarduerarekin lotutako zenbait zerbitzu modernizatzeko laguntza-programa arautu eta deitzen duena.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

**Deialdia eta araua:** 2022ko maiatzaren 10eko Agindua. – 2022ko maiatzaren 16ko EHAA, 93. zk.

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2022/05/2202080e.shtml>

**Hutsen zuzenketa:** 2022ko maiatzaren 10ekoa. – 2022ko maiatzaren 17ko EHAA, 94. zk.

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2022/05/2202094e.shtml>

**Kreditua agortzea:** 2023ko otsailaren 23ko Ebazpena. – 2023ko martxoaren 6ko EHAA, 45. zk.

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2023/03/2301198e.shtml>

## 4.- Dirulaguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

**Helburua:**

Helburua EAEko merkataritza-establezimenduen eta zerbitzu jakin batzuen modernizazioa bultzatzea da, berrikuntzaren, kudeaketa-tresnen hobekuntzaren, azpiegituren eta merkataritza-ekipamenduaren bidez, kalitate-maila eta lehiakortasun handiagoa lortzeko bide gisa.

**Hartzaileak:**

Autonomoentzat, sozietate zibilentzat eta legez eraturako ondasun-erkidegoentzat, eta mikro eta enpresa txikientzat, baldin eta haien jarduera nagusia merkataritzakoa edo merkataritza-jarduerarekin lotutako zerbitzuetakoa bada eta jarduera Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako merkataritza-establezimendu edo zerbitzuetan egiten badute.

**Aurrekontua:**

3.350.000 euro.



5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu-betearazpena eta gizartean duen eragina eta onura. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

	Guztira	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Jasotako eskaeren kopurua	2005	271	857	877
Emandako eskaerak	1470	196	638	636
Ezetsiak	270	18	48	20
Kreditua agortzea	265	57	73	135
Emandako zenbatekoa	3.348.121,72 €	428.306,03 €	1.627.251,71 €	1.292.563,98 €

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Laguntzaren onuradun diren merkataritza-establezimenduen kopurua	1.464	2.005



#### 1.- Dirulaguntza Programaren izenburua

**Merkataritzako bulego teknikoen funtzionamendurako laguntza-programa (MBT 2022-2023)**

#### 2.- Araua

AGINDUA, 2022ko uztailaren 19koa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuarena, Merkataritzako Bulego Teknikoen funtzionamendurako 2022ko eta 2023ko ekitaldirako laguntza-programa arautzen eta iragartzen duena (MBT 2022-2023).

#### 3.- Arauaren argitalpena, deialdia eta emate-erabakia (EHAari Hiperesteka)

Arauaren argitalpena eta deialdia: AGINDUA, 2022ko uztailaren 19koa

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/08/2203516e.shtml>

Huts-zuzenketa argitalpena: AGINDUA, 2022ko uztailaren 19koa (2022ko otsailaren 3ko EHAA, 24. zk.).

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2023/02/2300581e.shtml>

Onuradunen ebazpena: EBAZPENA, 2022ko abenduaren 29koa.

[https://www.euskadi.eus/behin\\_betiko\\_erabakia/ebazpena-merkataritza-zuzendariarena-merkataritza-bulego-teknikoentzako-laguntzak-ematen-dituena-mbt-2022-2023/web01-tramite/eu/](https://www.euskadi.eus/behin_betiko_erabakia/ebazpena-merkataritza-zuzendariarena-merkataritza-bulego-teknikoentzako-laguntzak-ematen-dituena-mbt-2022-2023/web01-tramite/eu/)

#### 4.- Dirulaguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Programaren xedea: Bulego horien bidez, langile kualifikatuek laguntza-zerbitzua emango diete, doan, merkataritzako banaketaren sektore osoari eta sektoreko erakundeei, genero-ikuspegian, jasangarritasunean eta eraldaketa digitalean oinarrituta.

Laguntza hauen onuradunak merkatarien elkarteak, federazioak edo agrupazioak dira, baita udalak edo udalek sustatutako garapen-erakundeak ere. Merkatarien elkarte, agrupazio eta federazioen kasuan, EAEko merkatarien elkarteen erroldan inskribatuta egon behar dute.

Merkataritzako Bulego Teknikoen bidez, aholkularitza espezializatua eman nahi da, berrikuntzarekin, kalitatearekin eta teknologia berriekin lotutako prozesuak bultzatu, eta udal-mailan edo banaketa-katean lankidetzak-estrategiak sustatu.

Lanaldi osorako urtebetean kontratatuta edukitzeak duen kostuaren %90ra arte iritsi ahal izango da laguntzen zenbatekoa. Nolanahi ere, bulego bakoitzak gehienez jasoko duen dirulaguntza ez da 40.000 eurotik gorakoa izango.



5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu-betearazpena eta gizartean duen eragina eta onura. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

Aurrekontu-betearazpena:

Ordainketa-kreditua: 1.600.000 euro / Konpromiso-kreditua: 400.000 euro.

Diruz lagundutako bulegoak: 50ra arte

Emandako dirulaguntza, guztira: 1.918.348,61 euro.

- Araba: 7 bulego lagundu dira -- 258.465,80 euro.
- Gipuzkoa: 20 bulego lagundu dira -- 767.627,20 euro.
- Bizkaia: 23 bulego lagundu dira -- 892.255,61 euro.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazleen emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Lagundutako bulego kopurua	50	50



1.- Dirulaguntza Programaren izenburua

**Hirigune, hiri merkataritzaren lankidetzaren, dinamizazio eta lehiakortasuneko zonako estrategiak sustatzera bideratutako 2022ko laguntza-programarako arauak ezarri eta deialdia egiteko**

2.- Araua

AGINDUA, 2022ko apirilaren 5ekoa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuarena, Hirigune – Hiri Merkataritzaren Lankidetzaren, Dinamizazio eta Lehiakortasuneko zonako estrategiak sustatzera bideratutako 2022ko laguntza-programarako arauak ezarri eta deialdia egiteko..

AGINDUA, 2022ko maiatzaren 4koa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuarena, zeinaren bidez aldatzen baita 2022ko apirilaren 5eko Agindua, Hirigune - Hiri Merkataritzaren Lankidetzaren, Dinamizazio eta Lehiakortasuneko zonako estrategiak sustatzera bideratutako 2022ko laguntza-programarako arauak ezarri eta deialdia egitekoa.

3.- Arauaren argitalpena, deialdia eta emate-erabakia (EHAari Hiperesteka)

Arauaren argitalpena eta deialdia: Agindua, 2022ko apirilaren 5ekoa,. –2022ko apirilaren 12ko EHAA, 73. Zk.

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2022/04/2201632e.shtml>

Aldaketa-aginduaren argitalpena: Agindua, 2022ko maiatzaren 4koa, -2022ko maiatzaren 10eko EHAA, 89. Zk.

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2022/05/2201982e.shtml>

4.- Dirulaguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Programaren xedea da hiri-inguruneetan merkataritzaren lankidetzaren, dinamizazio eta lehiakortasuneko zonako estrategiak sustatzea eta biziberrituko diren merkataritza-eremuen kokapena hobetzea.

Horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko merkatarien elkarten arteko lankidetzaren bultzatu nahi da, udal-inguruneak hiri-ekonomiako gune gisa balioesteko zonako estrategiak garatzeko, merkatarien elkarteei, elkarte mistoei edo hiri-merkataritzako plataforma, talde edo elkarteei zuzendutako laguntzen bidez.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu-betearazpena eta gizartean duen eragina eta onura. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

Aurrekontu-betearazpena: Ordainketa-kreditua: 1.850.000 euros

Eskaerak:

- Eskaera egin duten elkarten kopurua: 74 elkarte

- Sortutako inbertsioa: 2.517.238,81 euro

Emandako laguntzak:



- Diruz lagundutako elkarte kopurua: 74 elkarte
- Dirulaguntzen zenbatekoa, guztira: 1.850.000,00 euro

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazleen emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Diru-laguntzaren onuradun diren zonako elkarteak	77	74





#### 1.- Dirulaguntza Programaren izenburua

**Euskal Autonomia Erkidegoko merkataritza-sektoreko establezimenduetan kontsumoa sustatzeko «Euskadi bono-comercio / Euskadi saltoki-bonua» programa**

#### 2.- Araua

AGINDUA, 2022eko maiatzaren 10ekoa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuarena, zeinaren bidez arautzen eta iragartzen baita «Euskadi Bono-Comercio / Euskadi Bono-Denda» programa, Euskal Autonomia Erkidegoko tokiko saltoki txikia suspertzeko eta hiriko merkataritza-jarduerarekin lotura duten merkataritza- eta zerbitzu-sektoreko establezimenduetan kontsumoa sustatzeko.

AGINDUA, 2022ko irailaren 27koa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuarena, zeinaren bidez aldatzen baita 2022ko maiatzaren 10eko Agindua, «Euskadi Bono-Comercio / Euskadi Bono-Denda» programa arautzen eta iragartzen duena 2022ko ekitaldirako, Euskal Autonomia Erkidegoko tokiko saltoki txikia suspertzeko eta hiriko merkataritza-jarduerarekin lotura duten merkataritza- eta zerbitzu-sektoreko establezimenduetan kontsumoa sustatzeko.

#### 3.- Arauaren argitalpena, deialdia eta emate-erabakia (EHAARI Hiperesteka)

**Arauaren argitalpena eta deialdia:** Agindua, 2022eko maiatzaren 10ekoa,. –2022ko maiatzaren 16ko EHAA, 93. Zk.

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2022/05/2202079e.shtml>

**Gehitzearen argitalpena:** Agindua, 2022eko irailaren 27koa,. –2022ko urriaren 3ko EHAA, 189. Zk.

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2022/10/2204254e.shtml>

#### 4.- Dirulaguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

«Euskadi bono-comercio / Euskadi saltoki-bonua» programaren xede nagusia, Euskal Autonomia Erkidegoko enpresaburu autonomoek, mikroenpresek eta enpresa txikiek kudeatutako hiriko merkataritza-jardueran aritzen diren establezimenduetako ondasunak kontsumitzea eta zerbitzuak ematea sustatu nahi da.

Honez gainera, hurrengo helburuak bete ditu programak:

- Hiriko merkataritza-jarduerarekin lotura duten merkataritzako eta zerbitzuen sektoreko enpresaburu autonomoei eta mikroenpresa eta enpresa txikiei indartzen eta sendotzen laguntzea.
- Eskaria estimulatuta, herritarrei eta enpresa-sareari laguntzea, horiengan oinarritzen baitira merkataritza-sektorea eta hiriko merkataritza-jarduera.
- Hiriko merkataritza-jarduera dinamizatzea, hark udalerrian eta eskualdean duen eragina sustatuta.
- Hiriko merkataritza-jarduerarekin zuzeneko lotura duten merkataritza- eta zerbitzu-establezimenduen maniobra-funtsa hobetzea.



– Ukraina inbaditzearen ondorio ekonomikoa arintzea.

Kanpainara atxikitako hiriko merkataritza-jarduerarekin erlazioa duten merkataritza- eta zerbitzu-establezimenduetako kontsumoa lagunduko da diruz, horietan eskuragarri egongo den mota bakarreko deskontu-bonu baten bidez. «Euskadi bono-comercio / Euskadi saltoki-bonua» bakoitza 10 euroko deskontu-bonua da, eta atxikitako establezimenduetan egindako 30 euroko edo gehiagoko erosketan aplikatu da.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu-betearazpena eta gizartean duen eragina eta onura. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

Hasierako aurrekontua: 5.000.000 euro

Gehitze osteko aurrekontua: 9.000.000 euro

Azken exekuzioa: 8.913.320,00 euro

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazleen emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Kontsumitutako bonuen kopurua	900.000	891.332



## 1.- Dirulaguntza Programaren izenburua

**Euskal txikizkako merkataritzaren ekipamendu pertsonalaren eta etxeko ekipamenduaren azpisektoreei mantentzeko laguntzen programa - EPERHOGAR**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2022ko ekainaren 21ekoa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuarena, euskal txikizkako merkataritzaren ekipamendu pertsonalaren eta etxeko ekipamenduaren azpisektoreei eusteko laguntza-programarako deialdia egiten duena.

## 3.- Arauaren argitalpena, deialdia eta emate-erabakia (EHAARI Hiperesteka)

- EHAA esteka: <https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2022/06/2202886e.shtml>
- Laguntza emateko ebazpena: Banakako ebazpena

## 4.- Dirulaguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

**Helburua:**

Laguntzen agindu honen xedea da oinarriak ezartzea EAeko txikizkako merkataritzako ekipamendu pertsonalaren eta etxekoaren azpisektoreak, norberaren konturako langileak edo autonomoak, ondasun-erkidegoak, sozietate zibilak eta mikroenpresak eta enpresa txikiak babesteko eta zuzenean laguntza ekonomikoa emateko, eta, horrela, jarduerari ahalik eta lasterren berrekitea ahalbidetzea.

**Kreditua:**

15.000.000 euro

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu-betearazpena eta gizartean duen eragina eta onura. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

LH	Baietsitako eskabideak	Emandako laguntza	Onartutako eskaeren %	Emandako laguntza
Araba	382	364	%95,29	732.000,00 €
Gipuzkoa	1625	1526	%93,91	3.065.000,00 €
Bizkaia	2019	1911	%94,65	3.843.000,00 €
<b>Total</b>	<b>4026</b>	<b>3801</b>	<b>%94,41</b>	<b>7.640.000,00 €</b>

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazleen emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Lagundutako enpresen kopurua	7.384	4.026



#### 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Euskal Autonomia Erkidegoko merkataritza modernizatzeko programaren laguntzetarako (Funts Teknologikoa)**

#### 2.- Araua

**AGINDUA**, 2022ko azaroaren 29koa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuarena, zeinaren bidez oinarriak ezarri eta deialdi publikoa egiten baita Euskal Autonomia Erkidegoko merkataritza modernizatzeko programaren laguntzetarako (Funts Teknologikoa), Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan (Europar Batasunak finantzatua-Next Generation EU).

#### 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

**Arau erregulatzailea argitaratzea:** 2022ko azaroaren 29ko Agindua

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2022/12/2205433e.shtml>

**Dirulaguntza emateko ebazpena:** banakakoa.

#### 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

##### **Helburu eta xedea:**

Helburua merkataritza-sektorearen eraldaketa digital eta jasangarriaren bidez lehiakortasuna eta modernizazioa sustatu eta bultzatzea, Merkataritza Modernizatzeko Programaren (Funts Teknologikoa) esparruan.

Laguntza horien helburua da eduki teknologiko, berritzaile eta jasangarria duten proiektuen garapena finantzatzea. Plan eta proiektu horiek merkataritzako mikroenpresek eta enpresa txiki eta ertainek aurkeztuko dituzte, banaka edo elkarte bidez. Plan eta proiektuok merkataritza-jardueraren kudeaketan eta negozio-ereduan eragingo dute, enpresak kontsumo-ohitura berrietara, salmenta-modalitateetara, posizionamenduetara eta banaketara egokitzen direla bermatuz, eta lehiakorrago eta erresilienteago bihurtuz.

Oinarri hauen arabera emandako dirulaguntzak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/241 (EB) Erregelamenduak, 2021eko otsailaren 12koak, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duenak, ezarritako Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren bidez finantzatuko dira.

Bi laguntza-lerro ezartzen dira, erakunde onuradunen tipologiaren arabera:

- a) Merkataritza-sektoreko mikroenpresei eta enpresa txiki eta ertainei (aurrerantzean, ETEak) zuzendutako lerroa, baldin eta negozioaren jarduera nagusia bat badator Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionalaren (2009) 45., 46. edo 47. kodeetan jasotako jarduerekin (2009ko Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionala (EJSN-2009) onartzen duen apirilaren 13ko 475/2007 Errege Dekretuak onartua) eta egoitza soziala eta fiskala Euskal Autonomia Erkidegoan badute.



b) 2009ko Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionalaren (EJSN-2009) 45., 46. edo 47. kodeetan (2009ko Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionala (EJSN-2009) onartu zuen apirilaren 13ko 475/2007 Errege Dekretuak onartutakoak) jasotako jardueretako batean diharduten bazkideen gutxienez ehuneko 40 biltzen dituzten irabazi-asmorik gabeko merkatarien elkarteei, elkarteei edo legez eraturako federazio eta konfederazioei (aurrerantzean, elkarteak) zuzendutako lerroa.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

**Aurrekontua:**

Ekitaldiko aurrekontua: 2.075.884 euro

Aurrekontu-betearazpena: 2.069.059,36 euro

Soberakina: 6.824,64 euro

**Eskaerak:**

- ETEen eskaera kopurua: 498 ETE

- Elkarteen eskaera kopurua: 6 elkarte

**Emandako laguntzak:**

- Diruz lagundutako ETE kopurua: 150 ETE

- Diruz lagundutako elkarte kopurua: 5 elkarte

- Dirulaguntzen zenbatekoa, ETEen lerroan: 1.696.709,36 euro

- Dirulaguntzen zenbatekoa, elkarteen lerroan: 372.350,00 euro

- Dirulaguntzen zenbatekoa, guztira: 2.069.059,36 euro

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Laguntzaren onuradun izan diren merkataritzako ETEen kopurua	40	150
Laguntzaren onuradun izan diren merkataritza-elkarteen kopurua	5	5